

## JOSEBA LAKARRA

Joseba Lakarra Andrinua Bizkaiko Arratzun jaio zen, 1962ko urtarrilaren 1ean. Euskal Filologian lizentziatua (EHU, 1983), 1994an doktore maila lortu zuen, Koldo Mitxelenak eta Joakin Gorrotxategik zuzendutako *XVIII. Mendeko Hiztegiaren Etorkiez* izeneko tesiarekin. 1996an, Doktoregoko Sari Berezia jaso zuen.

2005eko abuztutik aurrera Euskararen Historia eta Euskararen Gramatika Historikoaren katedraduna da, EHUko Filologia eta Geografia-Historia Fakultatean. Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak sailean dihardu. Bere ikerketa-lerro nagusiak hauek dira: euskararen historia eta historiaurrea eta euskal testu zaharren edizio eta analisisa.

Publikatu dituen liburuen artean hauek daude, besteak beste: *Euskal Baladak. Azterketa eta Euskal Baladak. Antologia* (1983), *K. Mitxelenaren idazlan guztiak. Hizkuntzalaritza* (1988), *Manuel Larramendi. Euskal Testuak* (1990, Patxi Altunarekin batera), *Martin Harrieten hiztegiak (1741)*, (1995), *Towards a history of Basque language* (1995, J. I. Hualde eta Larry Traskekin batera), *Studies on Basque and Historical Linguistics in honor to R. L. Trask – Ikerketak Euskalaritzaz eta Hiskuntzalaritza Historikoaz. Larry Trasken Oroitzapenetan* (2006, J. I. Hualderekin batera).

ASJU-ren Zuzendaritzako kide da eta baita *Fontes Linguae Vasconum*-en batzordeko kide ere. 1988-2000 bitartean Eusko Jaurlaritzak finantzatu eta Euskal Idazleen Elkarteak argitaratutako *Euskal Klasikoak* bildumaren koordinatzaile izan zen (Patxi Altuna, Ibon Sarasola eta Blanca Urgellekin batera). *Euskeraren Iker Atalak / Litterae Vasconicae*-ren batzordeko kide ere izana da.

Unibertsitatean ere hainbat kargu akademiko bete ditu; besteak beste Filologia eta Geografia-Historia Fakultateko dekanoa izan zen, 2003tik 2007ko urtarril bitartean.

2004an ezagutu genuen Juan Perez Lazarragak XVI. mendean idatzi zuen eskuizkribua, eta idazlan horren lehen azterketa filologikoa eta literarioa Joseba Lakarrak egin zuen.

Euskaltzaindiak euskaltzain urgazle izendatu zuen 1991n.